| DATU PERTSONALEN ARLOKO INFORMAZIO POLITIKA: BISITAK |
| --- |
| ***Tratamenduaren arduraduna*** |
| **LAGUNARO SERVICIOS S.COOP (aurrerantzean, LagunAro)**<br>Helbidea: Jose Maria Arizmendiarrieta pasealekua 1, PK 20500, Arrasate (Gipuzkoa)<br>IFZ F20040804<br>Telefonoa: 943 79 01 00<br>**DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREN HARREMANETARAKO DATUAK**<br>Datuak babesteko ordezkariaren helbide elektronikoa: dpo@lagunaro.es |
| ***Tratamenduaren helburua*** |
| Datu pertsonalak honako helburu hauetarako tratatuko dira:<br>1. LagunAroren instalazioetara sartzen diren bisitarien eta mantentze lanak egiten dituzten pertsonen kudeaketa eta erregistroa, sarbideak kontrolatzeko eta pertsonen, ondasunen eta instalazioen segurtasuna bermatzeko.<br>2. LagunAro, EPSVko bisitarien kudeaketa eta erregistroa, bisitariok LagunAroren instalazioetara osasun azterketak egiteko, aldi baterako ezintasunen segimendua egiteko eta beste kontsulta batzuetarako sartzen direnean.<br>3. LagunAroren instalazioetara sartzen diren Osarten S.Coop.eko bisitarien kudeaketa eta erregistroa. |
| ***Tratamenduaren legitimazioa*** |
| Datuak interes legitimoan oinarrituta tratatuko dira, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.f) artikuluaren arabera. |
| ***Datuen jatorria*** |
| Interesduna.<br>Bisita egiten duen erakundea. |
| ***Datuak komunikatzea*** |
| Legez ezarritako betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren erakunde publiko edo pribatuei jakinaraziko zaizkie datuak, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.c) artikuluaren arabera.<br>Datuak jakin ahal izango zaizkie barne sistema informatikoak hornitzen dituen enpresari, papera suntsitzeko zerbitzua ematen duen enpresari eta bisitak behar bezala kudeatzeko behar den beste edozeini, zeintzuek LagunAroren jarraibideak betez tratatuko dituzten datuak. |
| ***Nazioarteko transferentziak*** |
| Ez dago aurreikusita zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik. |
| ***Datuak gordetzea*** |
| • Erakunde juridikoekin harremanetan jartzeko pertsonen datu pertsonalak gorde egingo dira pertsona juridikoaren bisita behar bezala kudeatzeko eta kontrolatzeko beharrezkoa den bitartean, eta helburuon ondorioz eta datuen tratamenduaren ondorioz sor litezkeen erantzukizunen preskripzio aldietan.<br>• LagunAroren instalazioak bisitatzen dituzten pertsona fisikoen datu pertsonalak 30 eguneko epean ezabatuko dira. |
| ***Eskubideak*** |
| Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta lekualdatzeko, mugatzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, baita ere, dagokionean, zure datuen tratamendu automatizatu hutsean oinarritutako erabakien xede ez izateko, LagunAroko datuak babesteko ordezkariaren aurrean, helbide elektroniko honetara jota: dpo@lagunaro.es edo posta helbide honen bidez: Jose Maria Arizmendiarrieta pasealekua 1, PK 20500, Arrasate |

| |
|---|
| (Gipuzkoa). Uste baduzu zure eskubideak ez direla bete, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan erreklamazioa aurkezteko eskubidea daukazu. |
| ***Segurtasun neurriak*** |
| Datuak modu konfidentzialean tratatuko dira eta neurri tekniko eta antolaketa neurri egokiak aplikatuko dira, baimenik gabeko edo legez kanpoko tratamenduaren aurkako eta datuen galera, suntsipen edo ustekabeko kaltearen aurkako babesa barne, arriskuaren araberako segurtasun maila bermatzeko. |